

**OHIKO BATZAR NAGUSIAREN
ONARPENERA JARTZEKO
ERABAKIEN PROPOSAMENA
(2026ko maiatzaren 28a)**

1. EROSKI KOOP.E.REN OHIKO ETA EZOHIKO BATZAR NAGUSIA ERATZEA.

Lehenengo puntu honetan, eta legezko betebeharrak gisa, Batzarreko Lehendakariak egiaztatuko du bete direla Batzarraren deialdia iragartzeko eta jendaurrean jartzeko formalitateak, eta, halaber, bazkide guztien –eta bereziki ordezkarien– esku jarri dela bilkuran bozkatuko diren erabakiei lotutako dokumentazio guztia.

Puntu honetan ez da erabakirik hartu behar.

2. BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO HIRU BAZKIDE IZENDATZEA.

Urtero bezala, Batzarraren gai-zerrendaren lehen puntua lege- eta estatutu-betebeharrak betetzera bideratuta dago: hiru bazkide izendatzea Batzarraren akta sina dezaten, Lehendakariarekin eta Idazkaritariarekin batera, legean jasotako eduki guztiak eta erabakiak hartzeko prozedurak betetzen dituela egiaztatuz.

Ezer erabaki aurretik, ohiko moduan, 2025eko ekainaren 2an egindako Batzar Nagusiaren akta onartu dela jakinarazten da, legez eta estatutuz ezarritako eskakizunak betez egin eta onartu baitzen.

Bilera honetako aktarekin modu berean jarduteko, bertaratutako arteen hiru pertsona hautatzea proposatzen da, Batzar honen akta Lehendakariarekin eta Idazkaritariarekin batera sina dezaten. Hau izango da

ERABAKIA:

Bakarra. - «Estatutu Sozialen 52. artikuluko 9. apartatuan ezarritakoaren arabera, bilera honetan dauden __ (3) __ izendatzen dira, Batzar honen akta onar eta sina dezaten, Lehendakariarekin batera».

3. SOZIETATEAREN 2025EKO EKITALDIARI DAGOZKION URTEKO KONTUAK ETA KUDEAKETA TXOSTENA, ETA, HALA BADAGOKIO, KONTU ETA KUDEAKETA-TXOSTEN BATERATUAK AZTERTZEA ETA, BIDEZKOA BADA, ONARTZEA.

Kontseilu Errektoreak, Urteko Kontu Indibidual eta Bateratuei eta Kudeaketa Txostenari buruzko erabaki honi dagokionez, 2025eko ekitaldiari dagozkion Urteko Kontu Indibidualak eta Bateratuak aurkezten ditu, Kontseilu Errektoreak 2026ko apirilaren 30ean egindako formulazioaren ondoren. Halaber, jakinarazten du PricewaterhouseCoopers Auditores SL (PwC) auditoria-enpresak kontu horiek behar bezala ikuskatu dituela.

Era berean, Kontseilu Errektoreak 2025eko ekitaldian egindako kudeaketaren gertaera garrantzitsuenak aurkeztuko ditu.

Ondoren, honako hauek proposatuko dira:

ERABAKIAK:

1) «Eroski Koop.E.ren Urteko Kontuak onartzea, bai eta 2026ko urtarrilaren 31n itxitako ekitaldiko Kudeaketa Txostena ere, Sozietateko kontu-auditoreek egiaztatua».

2) «Eroski Koop.E.ren eta mendeko sozietateen Urteko Kontu bateratuak onartzea, bai eta 2026ko urtarrilaren 31n itxitako ekitaldiko Kudeaketa Txostena ere, Sozietateko kontu-auditoreek egiaztatua».

4. 2025EKO EKITALDIARI DAGOKION INFORMAZIO EZ-FINANTZARIO BATERATUAREN EGOERARI ETA JASANGARRITASUNARI BURUZKO INFORMAZIOA AZTERTZEA ETA, BIDEZKOA BADA, ONARTZEA

Kontseilu Errektoreak, informazio ez-finantzario bateratuaren egoerari eta jasangarritasunari buruzko informazioaren inguruko erabaki honi dagokionez, gaitzerrendako puntu bereizi gisa aurkezten du hura onartzea, xedapen hauek ezarritakoarekin bat etorritik: 11/2018 Legea, abenduaren 28koa, Merkataritza Kodea, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina –uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua– eta Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legea aldatzen dituen informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzko informazioari dagokienez; eta 22/2015 Legea, uztailaren 20koa, Kontu Auditoretzarena, eta jakinarazi du AENOREk egiaztapen-zerbitzuaren emaile independentea dela ondorio horietarako.

Txostena egiteko eta egiaztapen-zerbitzuaren emaile independenteak egiaztapena egiteko, kontuan hartu dira, alde batetik, aipatutako 11/2018 Legea; eta, bestetik, Jasangarritasunaren Arloko Informazio Korporatiboari buruzko (EB) 2022/4264 Zuzentaraua (CSR). Zuzentaraua betetzea nahitaezkoa ez bada ere, konpainia atxiki zaio Kontabilitateko eta Kontu Auditoretzako Institutuak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta Omnibus I Zuzentarauak emandako gomendioari.

Beraz, hauek dira proposatzen diren

ERABAKIAK:

Bakarra. - «2026ko urtarrilaren 31n itxitako 2025eko ekitaldiari dagokion informazio ez-finantzario bateratuaren egoerari eta jasangarritasunaren informazioa onartzea, zeina aipatutako ekitaldiko kudeaketa-txosten bateratuaren parte den».

5. 2025EKO EKITALDIKO EMAITZEN BANAKETA

Gai-zerrendako puntu honetan, 2025eko ekitaldian lortutako emaitzen banaketa-proposamena egiten da. Eraitza positiboak eta 43.984.271,01 eurokoak dira, eta erabaki honen arabera bideratzea proposatzen da:

ERABAKIA:

1) Estatutu Sozialetan adierazitakoaren arabera, 43.984.271,01 euroko zenbatekoa duten 2025eko ekitaldiko emaitza positiboen banaketa honela onartzea:

| | | |
|---|----------------------|----------|
| SOBERAKIN GORDINA* | 48.010.785,96 | € |
| 2026ko urtarrilaren 31n ordaindu ziren eta funts propioen parte diren Eroskiren Mendeko Finantza Ekarpenen (EMFE) interesak abonatzera. | (6.944.119,69) | € |
| Batzar Nagusiak itzultzea erabaki ez duen kapitalei dagozkien kapital-ekarpenei interesak abonatzera, 2025/02/01 eta 2026/01/31 arteko aldiari dagozkionak. | (801.516,77) | |
| SOBERAKIN ERABILGARRIA | 40.265.149,50 | € |
| Kooperatibako Hezkuntza eta Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu Batzuetarako Nahitaezko Ekarpenera (IPDK): | 4.026.514,95 | € |
| Nahitaezko Erreserba Funtsera: | 8.053.029,90 | € |
| Lan-bazkideen itzulerara | 16.106.059,80 | € |
| Libreki eskuragarri dauden borondatezko erreserbetara | 12.079.544,85 | € |

* IPDK gehituta

6. KOOPERATIBAKO HEZKUNTZA ETA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO NAHITAEZKO EKARPENAREN (IPDK) BANAKETA

Puntu honetan, aurreko urteko IPDK funtsen aplikazioari buruzko kudeaketa-xostostenaren deskargua egingo da, 2024ko ekitaldiko emaitzetan oinarritua.

Era berean, Euskadiko Kooperatiben Legeak eta Eroski Koop.E-ren Estatutu Sozialek ezartzen duten bezala, Batzar Nagusiaren aurrean aurkezten dira uneko ekitaldirako Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako Ekarpenearen (IPDK) funtsak aplikatzeko oinarritzko ildoak. Beraz, aurreko puntuan zehaztutako IPDK funtsen banaketa proposatuko da.

Funts horiek Estatutu Sozialetan ezarritako helburuetarako erabiliko dira: besteak beste, kontsumitzailearen eta bazkideen prestakuntza eta informazioa, kooperatiben arteko harremanak sustatzea eta hezkuntza-, kultura-, lanbide- eta laguntza-sustapena.

Ekitaldian zehar, Kontseilu Errektorea arduratuko da oinarritzko aplikazio-ildo horiek kudeatzeaz eta exekutatzear, eta hurrengo Batzar Nagusian IPDKen helburuen berri emango du.

Horretarako, hau da proposatzen den

ERABAKIA:

Bakarra.- Kontseilu Errektoreak proposatuta, 2025eko ekitaldiko emaitzetatik abiatuta eraturako Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiboko funtsa honela banatuko da:

| | | |
|--|---------------------|----------|
| <i>EROSKI Fundaziora:</i> | 850.000 | € |
| <i>Banaketa orokorrera estatutuetako xedeekin bat</i> | 3.176.514,95 | € |
| <i>GUZTIRA:</i> | 4.026.514,95 | € |

7. ESTATUTU-, LEGE- ETA ANTOLAKETA-XEDAPENAK

7.1. Ekarpenei buruzko erabakiak.

- a) Baja eman duten bazkideen ekarpenak itzultzeko erabiliko den gehieneko zenbatekoa zehaztea eta itzulketa horri buruzko akordioa hartzea.

Estatutu Sozialen 23. artikulua ahalmena ematen dio Batzar Nagusiari urtero zehazteko bazkideei itzuli beharreko kapital-ekarpenen gehieneko zenbatekoa, Kontseilu Errektoreak 2026ko maiatzaren 20ra arte baja erabaki duen kasuetan, eta ekarpenen itzulketari buruzko erabakiaren zain daudenean.

Kooperatibak ahalegina egiten du konpainiaren ohiko jardunean sortzen diren eskaerei erantzuteko, ahal duen neurrian. Horretarako, beharrezkoa da, kooperatibaren kaudimena eta etorkizuna bermatzeaz gain, gutxieneko kaudimen- eta likidezia-mailak mantentzea, eta irizpide batzuk jarraitzea zein neurriak hartzea, baja hartu duten bazkideen ekarpenen itzulketak ez dezan gainditu kooperatibak duen xurgatze-gaitasuna.

Beraz, ekarpen-itzulketara bideratutako zenbatekoa Kontseilu Errektoreak zehaztutako kaudimen- eta likidezia-atalaseak kontuan hartuta ezartzen da.

Era berean, Batzar Nagusiak ahalmena du kooperatiban baja eman duten bazkideei egindako ekarpenak itzultzea erabakitzeko.

Kontseilu Errektoreak, aurkeztutako eskaeretan eta itzultzeko erabakitzeko dauden kapalaetan oinarrituta, eta Estatutu Sozialetan aipatutako eta ezarritako atalaseen azterketa kontuan hartuta, erabaki hauek proposatzen dizkio Batzar Nagusiari:

ERABAKIAK:

- 1) «13.800.000 (hamahiru milioi) eurotan ezartzea Kontseilu Errektorearen erabakiz 2026ko maiatzaren 20ra arte kooperatiban baja hartu duten bazkideen ekarpenak itzultzera bideratuko den zenbatekoa, baldin eta Batzar Nagusiak ez badu onartu ekarpen horien itzulketarik».**
- 2) «2026ko maiatzaren 20ra arte Kontseilu Errektorearen erabakiz kooperatiban baja hartu duten bazkideen ekarpenak itzultzea erabakitzea, baldin eta Batzar Nagusiak ez badu onartu ekarpen horien itzulketarik –osorik zein partzialki–, 13.800.000 (hamahiru milioi) eurora arte, Eroskiren Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera».**
- 3) «Aurreko puntuan ezarritako zenbatekoa gainditzen duen gainerako zenbatekoari dagokionez, eta Kontseilu Errektoreak 2026ko maiatzaren**

20ra arte onartu ez dituen itzulketa-eskaeren zenbateko osora iritsi arte, eta Estatutu Sozialen 23. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, ekarpen horiek ez itzultzea erabakitzea».

b) Sozietateari baimena ematea mendeko finantza-ekarpenak autozorroraubidean eskuratzeko

Eroskik 2002 eta 2007 artean merkaturatutako finantza-ekarpenak ditu jaulkita. Jaulkipenari buruzko erabakietan, Eroskik konpromisoa hartu zuen merkatuan likidezia-maila jakin bat mantentzeko, tituluak erosiz kapitalaren % 10aren zenbateko baliokidera iritsi arte, eskaintza eta eskari nahikoa bultzatzeko lehendik zeuden tituluen trafikorako.

Konpromiso hori betetzen jarraitzeko, Batzar Nagusiak berriro egin behar du Kontseilu Errektoreari ekarpen horiek eskuratzeko emandako ordezkari-tza, bai zuzenean, bai sozietate filialen bidez.

Helburu horrekin, egokitzat jotzen da baimen hori berritzea, eta, beraz, honako hau proposatzen da:

ERABAKIA:

Bakarra. - «Kontseilu Errektoreari baimena ematea 2002, 2003, 2004 eta 2007ko jaulkipenetako mendeko finantza-ekarpenak (MFEak) zuzenean edo bere taldeko edo lotetsitako beste edozein sozietateren bidez eskuratzeko eta zorroan mantentzeko, gehienez ere Sozietatearen kapitalaren % 10eko zenbatekoan –ondore horietarako, MFEen jaulkipen guztien zenbatekoa barne–, egokitzat jotzen diren termino eta baldintzetan eta indarreko legeriak ezarritako bermeekin. Sozietateak erosten dituen MFEen erosketa-prezioa ezingo da izan MFEek merkatuan izan duten azken prezioa baino % 50 txikiagoa edo handiagoa; bestela, edozein likidezia-entitatek argitaratutako kotizazio-prezioaren araberakoa izango da. Salbuespenez, sozietateak egindako edo egin beharreko kontratuetan, erosketa-prezioa likidezia-entitate horiekin hitzartutako kontratuetan zehaztutako erosketa-prezio bera izango da. Sozietateari gehienez 18 hilabeteko eperako ematen zaio MFEak erosteko baimen hau».

c) Lan-bazkide berrien nahitaezko ekarpenak eguneratzea

Euskadiko Kooperatiben Legearen 61.4 artikulua eta Estatutu Sozialen 36.7 artikulua ezartzen dutenez, Batzar Nagusiak urtero finkatu behar du nahitaezko ekarpen horien zenbatekoa.

Beraz, 2025eko uztailaren 1etik aurrera sartutako bazkide berriek sarrera-kuota eta nahitaezko kapital gisa egin beharreko ekarpenak zehaztu behar dira.

Aurtengo proposamena da 2024ko eta 2025eko Batzar Nagusietan kontzeptu horietarako ezarritako zenbatekoak mantentzea, eta zenbateko horiek 2026ko uztailaren 1etik aurrera sartzen diren bazkide guztiei aplikatzea. Beraz, honako hau proposatuko da:

ERABAKIA:

Bakarra. - «Lan-bazkideek egin beharreko ekarpenak zehaztea: sarrera-kuota 2.473,86 eurokoa izango da, eta kapital sozialerako nahitaezko ekarpena 9.895,43 eurokoa. Beraz, 2026ko uztailaren 1etik aurrerako alta-datarekin bazkidegai gisa sartzen diren bazkideek guztira egin beharreko nahitaezko ekarpena 12.369,29 eurokoa izango da».

7.2. Funts propioen parte diren mendeko finantza-ekarpenen ordainketa egitea.

Estatutu Sozialen 39 bis artikuluan ezarritakoa betez, urtero erabaki behar da funts propioen parte diren mendeko finantza-ekarpenek ordainsaria sortzen duten ala ez. Kontabilitateko Nazioarteko Arauak indarrean sartu zirenetik sortutako eskakizun bat da erabakia, MFEak Funts Propioetat hartzeko.

2025eko Batzar Nagusian onartu zen jada 2026ko ekitaldiko MFEen ordainketa, 2027ko urtarrilaren 31n amaituko dena, egun horretan bertan ordainduz.

Aurten, 2027ko ekitaldirako ordainketa hori adostea proposatzen da –ekitaldia 2028ko urtarrilaren 31n amaituko da, eta egun horretan bertan ordainduko da–, zirkulazioan dauden MFEen jaulkipena arautzen duten baldintzetan ezarritakoaren arabera.

Horrenbestez, hau da proposatzen den

ERABAKIA:

Bakarra. - «2007an jaulkitako eta Funts Propioen parte diren mendeko finantza-ekarpenen 2027ko ekitaldiari dagokion ordainketa onartzea. Ordainketa horren interes nominala eta zenbateko gordina jaulkipen-baldintzetan ezarritakoaren arabera kalkulatuko dira, eta 2028ko urtarrilaren 31n abonatu da».

7.3. Batzar Nagusiak itzultzea erabaki ez duen lan-bazkideen kapital sozialerako ekarpenen ordainketa egitea.

Euskadiko Kooperatiben Legearen 63. artikuluan eta Eroskiren Estatutu Sozialen 23. artikuluan arabera, Batzar Nagusiak itzulketa onartu gabeko lan-bazkideek kapital sozialari egindako ekarpenak eta dagokien legeko interesa ordaindu beharko lirateke.

Horrenbestez, honako erabaki hauek hartzea proposatzen da:

ERABAKIAK:

Lehenengoa.- 2026eko otsailaren 1ean hasi eta 2027ko urtarrilaren 31n amaitutako aldiari dagokionez, ordainsari gordina aitortzea baja eman duten bazkideek kapitalari egindako ekarpenengatik, diruaren legeko interesaren baliokidea, Batzar Nagusiak itzulketa onartu ez badu ere.

Bigarrena.- Aurreko erabakiarekin bat etorritik, adosten da haren sortzapena egingo dela zergen atxikipearen ordainsari garbia «Sortutako interesetatik sortutako ekarpenak» izeneko ekarpen bihurtuz.

8. ERREKURTSO-BATZORDEA BERRITZEA

Errekurtsio Batzordea kooperatibako organo bat da, bazkideei arau-hauste astun edo oso astunengatik irekitako diziplina-espedienteetan ezarritako zehapenen aurkako errekurtsioak ebazteaz arduratzen dena, barne-bideari amaiera emanez.

Bertako kide titullarrak eta ordezkioak Batzar Nagusiak hautatzen ditu, bozketa sekretu bidez. Eskubide osoko bazkide izan behar dira, eta Estatutu Sozialetan ezarritako eskakizunak bete behar dituzte antzintasunari, kooperatiba-esperientziari eta egokitasunari dagokienez. Halaber, ezin dute beste kargu sozialik izan.

Errekurtso Batzordea lan-bazkideen hiru ordezkari eta bazkide kontsumitzaileen bi ordezkari osatzen dute. Urtero, Errekurtso Batzordearen erdia berritu behar da. Kasu honetan, hiru hautagai izendatu behar dira: bi lan-bazkideen artean eta bat bazkide kontsumitzaileen artean, egingo den bozketa sekretu bidez. Azkenik, emandako botoen kontaketa egin ondoren, honako hau proposatuko da:

ERABAKIA:

«Egindako bozketaren ondorioz, hauek dira Errekurtso Batzorderako izendatuak, Estatutuetan ezarritako gehienez bi urteko eperako»

| Bazkide kontsumitzaileak | Lan-bazkideak |
|---------------------------------|----------------------|
| <i>Titularra</i> | <i>Titularra</i> |
| | |
| | |
| <i>Ordezkoa</i> | <i>Ordezkoa</i> |
| | |
| | |

9. KONTSEILU ERREKTOREA BERRITZEA

Batzar Nagusiak hautatzen ditu Kontseilu Errektoreko kide titularrak eta ordezkioak, bozketa sekretu bidez. Eskubide osoko bazkide izan behar dira, eta Estatutu Sozialetan ezarritako eskakizunak bete behar dituzte antzinateari, kooperatiba-espereziari eta egokitasunari dagokienez. Halaber, ezin dute beste kargu sozialik izan.

Bi urtetik behin, Kontseilu Errektorearen erdia berritu behar da. Bazkide kontsumitzaileen artean hiru hautagai izendatu behar dira, eta lan-bazkideen artean beste hiru, egingo den bozketa sekretu bidez.

Azkenik, emandako botoen kontaketa egin ondoren, honako hau proposatuko da:

ERABAKIA:

«Egindako bozketaren ondorioz, hauek dira Kontseilu Errektorera izendatuak, Estatutuetan ezarritako gehienez lau urteko eperako»

| Bazkide kontsumitzaileak | Lan-bazkideak |
|---------------------------------|----------------------|
| Titularra | Titularra |
| | |
| | |
| Ordezkoa | Ordezkoa |
| | |
| | |
| | |

10. HARTUTAKO ERABAKIAK JENDAURREAN JARTZEKO AHALMENAK ESKUORDETZEA.

Gai-zerrendako puntu honetan, eta lege- zein estatutu-betebeharrak hobeto betetzeko, ohiko erabaki bat proposatzen da: Batzar Nagusiak Kontseilu Errektoreari ahalmenak eskuordetzea. Horrela, bertako edozein kidek eskritura publikoa egiletsi ahal izango du, Batzar honek hartutako edozein erabaki jasoz, eta interesa duen agintari, Administrazio eta erregistro ororen aurrean egiaztatu ahal izango du.

Beraz, honako hau proposatzen da:

ERABAKIA:

«Kontseilu Errektoreko kide bakoitzari eta letradu aholkulariari eskuordetzea, horietako edozeinek Batzar Orokorrak hartutako erabakiak ahalik eta osoen betearazteko beharrezkoak edo komenigarriak diren garapen- edo betearazpen-jarduketa edo -kudeaketak erabaki eta gauzatu ahal izatea –dagozkion kontratuak eta dokumentuak sinatzea barne–, egokitzat jotzen dituzten klausula eta baldintzekin, bai eta erabaki horiek interpretatzea, zuzentzea eta osatzea eta hautatutako notarioaren aurrean agertzea eta jendaurrean jartzea ere. Horretarako, dagozkion eskritura publikoak egiletsi ahal izango dituzte, baita zuzenketak, argibideak edo zuriketak ere, eta erabakiak erabat eraginkorrak izateko beharrezkoak edo komenigarriak diren jarduketa guztiak egingo dituzte. Halaber, legez eska daitezkeen dokumentu guztiak erantsiko dituzte eta beharrezkoak diren kudeaketak egingo dituzte, erabaki horien gordailua eta/edo inskripzioa lortu arte (inskripzio partzialaren eskaera barne), dagokion erregistroetan, bai haiek bai beste edozein organismo edo agintaritzak egindako ahozko edo idatzizko kalifikazioei erantzunez»..

11. GALDERAK ETA ESKAERAK
